



HAUTAKETA PROZESUA: OHIKO PROZESUA. 2022KO URRIAREN 20KO UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREAREN EBAZPENAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA. (2022ko ABENDUAREN 22ko EHAA)

SARRERA MOTA: OROKORRA

DEIALDI ESPEZIFIKOA: GESTIOKO TEKNIKARIEN (PSIKOLOGIA) ESKALA (Ohiko prozesua).

OPOSIZIO FASEAREN BEHIN BETIKO EMAITZAK ARGITARATZEKO EPAIMAHANAREN ERABAKIA.

8.5.1. oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera, Gestioko teknikarien (Psikologia) eskalaren - (Ohiko prozesua) hautaketa-prozesurako oposizio fasearen probaren behin-behineko emaitzen aurkako aurkezturiko erreklamazioak aztertu ondoren, epaimahai honek honako **ERABAKI HAUEK HARTU DITU:**

Lehenengoa: I. Eranskinean ezartzen denez, jasotako erreklamazioei erantzutea.

Bigarrena: I. eranskinean azaldutako argudioengatik aurkeztutako erreklamazio bat onartu ondoren, 83. galdera baliogabetu egin da, eta azterketan sartu da erabili ez den erreserbako lehen galdera, hau da, 102 zenbakia.

Hirugarrena: Izangai guztien azterketa berriro baloratzea, aurreko puntuak ezarritakoaren arabera; lortutako kalifikazi berriek osatuko dute oposizio-faseko behin betiko puntuazioen zerrenda (II. eranskina). Zerrenda hori lortutako puntuazioaren arabera ordenatzen da, handienetik txikienera.

Laugarrena: Zerrenda hori UPV/EHUren enplegu-atarian (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp) argitaratzeko agintzea, izangaiek kontsultatu ahal izan dezaten.

Leioan, sinadura elektronikoan agertzen den datan.

Epaimahaiaren idazkaria